

1999  
2019

20URTEYEARS AÑOS



# 320 ZALETU BAINO GEHIAGOK EGINGO DITUZTE HÄNDELEN “MESIAS”-EN KORUAK ABENDUAREN 5EAN EUSKALDUNAN EGINGO DEN PARTAIDETZA KONTZERTUAN

**“La Caixa”-k eta BOSeK bultzatzen dute  
Lurraldeko abesbatza elkarte  
partaidetza duen kontzertua**

**Kontzertu hunkigarria eta musika zaleek  
gogo handiz itxaroten dutena,  
dagoeneko klasiko bilakatu dena**

*Bilbon, 2019ko azaroaren 7an*

Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta “La Caixa”-k “Bilboko 2019ko Mesias Partaidea” antolatu dute abenduaren 5ean, ostegunean, 19:30ean, Euskalduna Jauregiko Auditoriumean.

Partaidetzan oinarritutako “La Caixa”-ren kontzertuek musika koralararen zale diren abeslariak eta nazioartean ospe handia duten orkestrak, bakarlariak eta zuzendariak elkartzen dituen esperientzia paregabea



MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
prentsa@euskalduna.eus

1999  
2019

FOURTEEN YEARS / CATORCE AÑOS



eskaintzen dute, elkarren artean garai guztietako erreperitorio sinfoniko-koraleko lan enblematikoenetako batzuk interpretatzeko.

Horrela, abenduaren 5ean, hilabeteetan entseguak batera egin ondoren, musika eta pedagogia egitasmoari amaiera berri eta hunkigarria emango zaio, G. F. Händelen "Mesias" lan ezagunaren bertsio partaidearekin. Bertan, Bilboko 320 abeslari zaletu baino gehiagok abestuko dituzte lanaren alderdi koralak, Euskalduna Jauregiko Auditoriumeko euren eserlekuetatik.

Sarrerak salgai daude jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan, 11,50 eurotik aurrera (kudeaketa gastuak barne).

**Interpreteak:**

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)

Bilboko korala (orkestra eta abesbatza)

Rowan Pierce, sopranoa

Victoria Simmonds, kontraltoa

Ed Lyon, tenorea

Henry Waddington, baxua

Parte hartuko duten abesbatzak

**Zuzendaritza:**

Eamonn Dougan



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
[prentsa@euskalduna.eus](mailto:prentsa@euskalduna.eus)